

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Herritarren partaidetza-prozesuek politika publikoen diseinuan duten eragina aztertuko dira jardunaldi batean

Irailaren 8an egingo da Iruñean eta hilaren 6ra arte izena eman daiteke

Astelehena, 2016.eko abuztuak 29

Nafarroako Gobernuko Herritarren Arretarako eta Partaidetzarako Zerbitzuak datorren ostegunean, irailak 8, herritarren partaidetzari buruzko beste [jardunaldi](#) bat antolatu du; haren helburua prozesu horiek aztertzea da, politika publikoen diseinuan benetan zer eragin duten baloratzen saiatuz: Zer gertatzen da prozesu horietatik sortutako proposamenekin? Praktikara eramaten al dira? Zergatik hartzen dira proposamen batzuk eta beste batzuk ez?

Jardunaldian, halaber, biztanleen sektore guztien partaidetza uzten duten beharrezko tresnei buruz hausnartuko da, genero-ikuspegi azpimarratuz.

16:30ean egingo da Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutuan (Pio Baroja aretoa), Navarrerria kalea, 39, Iruña. Izena irailaren 6an baino lehen eman daiteke (<http://bit.ly/Jornada0809>).

Herritarren partaidetzarako jardunaldi hori honako hauentzat da: herritarrak, administrazioetako langileak, unibertsitateak, toki-garapeneko agentziak, enpresa-arloa, lanbide-elkargoak, hedabideak, adituak eta arloko profesionalak, sindikatuak, GKEak, herritarren nahiz profesionalen elkarteak, eta hilaren 8an egingo da, 16:30ean, 20:00etan hasita.

Honako gai honi buruzko hitzaldi bat ere hartuko du barnean: "Partaidetzarako mekanismoak: adierazitako helburuak eta izan daitezkeen errendimenduak". Azterketa Sozial Aurreratuen Institutuko (IESA-CSIC) zuzendari Joan Font Fábregasek emango du 16:35etik aurrera.

17:20 aldera, partaidetza-prozesuetako genero-ikuspegiaren esanahiari buruzko aurkezpen bat egingo da Nafarroako Berdintasunerako Institutuko sustapen nahiz kudeaketako zuzendariorde Geno Ochando Ortizen eskutik. Eta 17:30ean "Sakontze demokratikoari genero-ikuspegi batetik begiratzea" izeneko hitzaldia eskainiko du Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV-EHU) Politika eta Administrazio Zientziako irakasle Jone Martínez Palaciosek.

Jarraian, tailerretan lan egingo da "2016-2019ko Nafarroako Herritarren Partaidetza Sustatzeko Planaren genero-ikuspegia" gaiarekin.